**BAZTANGO UDALA**
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN

**2016ko MARTXOAren 23ko EZOHIKO OSOKO BILKURA**

***SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DE 23 DE MARZO DE 2016***

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2016ko martxoaren 23an, 8:00etan, Baztango Udala Osoko Bilkuran bildu da ezohiko bileran, Joseba Otondo Bikondoa alkate jauna buru dela, honako zinegotziak etorri dira: Mikel Ortega Arraztoa, Maite J. Iturre Llano eta Juan Cruz Iriarte Bañez EH-BILDU taldekoak; Begoña Sanzberro Iturriria, Maria Isabel Olave Ballarena, Maria Carmen Iribarren Iribarren eta José Javier Aguirre Azcarraga UPN taldekoak; Ruben Ciganda Sanz eta Joseba Moreno Videgain GEROA BAI taldekoak; Florentino Goñi Tellechea eta Iñigo Iturralde Eliceche BAZTANGO EZKERRA taldekoak; Alejandro Martin Ibarra BAZTAN AUZOLANEAN taldekoa.

Idazkari lanetan, Ainara Armendariz Castien aritu da.

Alkatearen aginduz, bilkura hasi da.

**1.- 2015eko urtarrilaren 1ari dagokion Baztango biztanleriaren zifraren berri ematea, 14/2016 Foru Aginduaren bidez ofizialtzat jotzen dena.**
Idazkariak 14/2016 Foru Aginduaren bidez Baztango udalari dagokionean 2015eko urtarrilaren 1ean ofizialtzat jotzen den zifra 7.792 biztanlekoa dela berri eman du eta Udalbatzak **jakintzat eman du.**

**2.- Sozioekonomia arloko informazio batzorde iraunkorreko partaideak izendatzea.**
Ikusita Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 20.1 c) atalean ezartzen dena eta Toki Entitateen Antolaketa eta Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege-Dekretuaren 123 eta ondorengo artikuluetan araut6takoa, eta aintzat hartuta udal taldeek horren ariora aurkeztutako idazkiak, alkateak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak aho batez **erabaki du**:

*En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 8:00 horas del día 23 de marzo de 2016, se reúne, en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde Joseba Otondo Bikondoa, y con la asistencia de los siguientes concejales: Mikel Ortega Arraztoa, Maite J. Iturre Llano y Juan Cruz Iriarte Bañez por el grupo EH-BILDU; Begoña Sanzberro Iturriria, María Isabel Olave Ballarena, María Carmen Iribarren Iribarren y José Javier Aguirre Azcarraga, por el grupo UPN; Rubén Ciganda Sanz y Joseba Moreno Videgain por el grupo GEROA BAI; Florentino Goñi Tellechea e Iñigo Iturralde Eliceche por el grupo BAZTANGO EZKERRA; Alejandro Martín Ibarra, por el grupo BAZTAN AUZOLANEAN.*

*Actúa como secretaria Ainara Armendariz Castien.*

*El alcalde da comienzo a la sesión.*

***1.- Dar cuenta de la cifra de población de Baztan a fecha 1/01/2015, según la Orden Foral 14/2016 por la que se declaran oficiales las cifras de población.***
*La secretaria da cuenta de que la cifra de población de Baztan que se declara oficial a 1 de enero de 2015 por la Orden Foral 14/2016 es de 7.792 habitantes y el Pleno **se da por enterado**.*

***2.- Nombramiento de las/los integrantes la CIP de asuntos socioeconómicos.***
*Visto lo establecido en el artículo 20.1 c) de la Ley de Bases de Régimen Local y en el artículo 123 y siguientes del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, vistos los escritos presentados al efecto por los grupos municipales, el alcalde llama a votar y el Pleno, por unanimidad **acuerda:***

1.- Sozioekonomia arloko informazio batzorde iraunkorrerako honako partaideak izendatzea: EH-Bildutik Joseba Otondo Bikondoa eta Mikel Ortega Arraztoa; UPNtik Jose Javier Aguirre Azcarraga eta Begoña Sanzberro Iturriria; Geroa Baitik Ruben Ciganda Sanz; Baztango Ezkerratik Iñigo Iturralde eta Baztan Auzolanetik Alejandro Martin Ibarra.
2.- Akordio hau udal talde guztiei jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

**3.- Baztango Bailarako Udal Planaren Ordenantza Orokorren VI. kapituluaren 35., 43. eta 49. artikuluen aldaketa xehakatua.**
Idazkariak azaldu du proposatzen den aldaketak izaera xehakatua duela eta bere tramitazioa 35/2002 Lurralde Antolaketa eta Hirigintza Foru Legearen 74. artikuluaren arabera egin behar dela; alegia, hasiera batez onartzea, Nafarroako Aldizkari ofizialean argitaratzen denetik hilabeteko jendaurreko epea eta berriro ere Osoko Bilkuran behin betiko onartzea.

Zehazki aldaketa honen xedea da Baztango Bailarako Udal Planaren Ordenantza Orokorren VI. kapituluaren 35., 43. eta 49. artikuluen aldaketa.

Alkateak adierazi du hirigintzako informazio batzordean landu zela gaia eta gero ere alegazio epean aukera izanen dela, beharra izanez gero, zerbait aldatu behar bada, aldatzeko.

Eztabaida bukatuta, alkateak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak aho batez **erabaki du:**
1.- **Hasiera batez onartzea** Baztango Bailarako Udal Planaren Ordenantza Orokorren VI. kapituluaren 35., 43. eta 49. artikuluen aldaketa xehakatua.
2.- Espedientea hilabete batez **jendaurrean jartzea**, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitateko egunkarietan iragarkia paratuz.

**4.- Mozioa: "Iruñea Harrera-Herria ekimen herritarrak" aurkeztua.**
Aurrekariak azaldurik eta saio honi dagokion soinu fitxategian bildutako eztabaidaren ondoren, alkateak mozioa bozkatzera deitu du.
Udalbatzak aho batez mozioa **onartu du.**

*1.- Que los corporativos representantes de los grupos de la Corporación en la comisión informativa permanente de asuntos socioeconómicos sean los siguientes: de EH-Bildu: Jose Otondo Bikondoa y Mikel Ortega Arraztoa; de UPN: José Javier Aguirre Azcarraga y Begoña Sanzberro Iturriria; de Geroa Bai: Rubén Ciganda Sanz; de Baztango Ezkerra: Iñigo Iturralde; y de Baztan Auzolanean: Alejandro Martín Ibarra.*
*2.- Notificar este acuerdo a los grupos municipales, para su conocimiento y efectos.*

***3.- Modificación pormenorizada de los artículos 35, 43 y 49 del capítulo VI de las Ordenanzas Generales del Plan Municipal del Valle de Baztan.***
*La secretaria expone que la modificación que se plantea es de carácter pormenorizada, por lo que su tramitación será la establecida en el artículo 74 de la Ley Foral 35/2002, de Ordenación del Territorio y Urbanismo; es decir, aprobación inicial por Pleno, exposición pública de 1 mes desde la publicación del anuncio en el BON y aprobación definitiva en Pleno.*
*En concreto se propone modificar los artículos 35, 43 y 49 del capítulo VI de las Ordenanzas Generales del Plan Municipal del Valle de Baztan.*
*El alcalde ha expuesto que en la comisión informativa de urbanismo se trató el asunto y que luego, si se ve necesario se podrá introducir alguna modificación durante el periodo de alegaciones.*

*Terminadas las exposiciones, el alcalde llama a votar y el Pleno, por unanimidad, **acuerda:***
*1.- **Aprobar inicialmente** la modificación pormenorizada de los artículos 35, 43 y 49 del capítulo VI de las Ordenanzas Generales del Plan Municipal del Valle de Baztan.*
*2.- **Someter** el expediente **a información pública** durante un mes, mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Navarra y diarios editados en la Comunidad Foral.*

***4.- Moción presentada por "Iruñea Harrera-Herria ekimen herritarra- Iniciativa ciudadana Iruñea Ciudad de Acogida".***
*Explicados los antecedentes y tras un breve debate recogido en el archivo de audio de la presente sesión, el alcalde llama a votar la aprobación de la moción.*
*El Pleno por unanimidad **aprueba** la moción.*

**5.- Mozioa: Baztango Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai Baztan eta Baztan Auzolanean alderdiek aurkeztua. 15-03527 gora jotzeko helegitea.**

Mozioaren testua irakurri ondoren, alkateak aipatu du gobernu taldearen tesia dela Zahar-etxea erakunde publiko autonomoa dela. Horrela esaten dute ere aurreko bi idazkarik egindako txostenek eta Nafarroako Auzitegi Administratiboak berak ere bere Ebazpen batean. Hain zuzen ere, hori argi gera dadin jarri zen helegitea.

Aurrekariak azaldurik, alkateak mozioa bozkatzera deitu du.

Udalbatzak mozioa **onartu du,** aldeko 7 botorekin (UPN, Geroa Bai eta Baztan Auzolanean) eta 6 kontrako botorekin (EH-Bildu, Baztango Ezkerra).

***5.- Moción presentada por Unión del Pueblo Navarro de Baztan, Geroa Bai de Baztan y Baztan Auzolanean. Recurso de alzada 15-03527.***

*Se lee el texto de la moción y el alcalde expone que la tesis del equipo de gobierno es que la Residencia es un organismo autónomo público, tal y como avalan los informes de dos secretario/a anteriores y Resoluciones del propio Tribunal Administrativo de Navarra. El objeto del recurso es aclarar esta cuestión.*

*Explicados los antecedentes el alcalde llama a votar la aprobación de la moción.*

*El Pleno **aprueba** la moción, con 7 votos a favor (UPN, Geroa Bai, Baztan Auzolanean) y 6 en contra (EH-Bildu, Baztango Ezkerra).*

**6.- Mozioa: Baztango Ezkerrak aurkeztua. Etxeetako langileak.**

Aurrekariak azaldurik eta saio honi dagokion soinu fitxategian bildutako eztabaidaren ondoren, alkateak mozioa bozkatzera deitu du.

Udalbatzak aho batez mozioa **onartu du.**

***6.- Moción presentada por Baztango Ezkerra. Empleadas/os del hogar.***

*Explicados los antecedentes y tras un breve debate recogido en el archivo de audio de la presente sesión, el alcalde llama a votar la aprobación de la moción.*

*El Pleno por unanimidad **aprueba** la moción.*

**GALDE- ESKEAK**

Ruben Cigandak galdetu du erantzuteke dagoela nola doan Arizkunenean wifi-a jartzea eta Mikel Ortegak erantzun dio egunotan mantentze lanekoak lanpetuak dabiltzala "Zaindari ikusezina" pelikularen filmaketaren aferekin. Horrek lana ekarri du eta gainera Arizkuneneko goitiko zonalde osoa hartu dute. Udala elkarlanean ari da produktorearekin eta hori bukatzean ekingo zaio Arizkunenean wifi-a jartzeari.

***RUEGOS Y PREGUNTAS***

*Rubén Ciganda pregunta cómo va la instalación de wifi en Arizkunenea, a lo que Mikel Ortega responde que estos días ha comenzado el rodaje de la película "El guardián invisible" y que se está colaborando con la productora, por lo que el equipo de mantenimiento está muy ocupado con eso y además han ocupado toda la zona superior de Arizkunenea. Cuando se acabe con esos trabajos se procederá a la instalación de wifi en Arizkunenea.*

Aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, 8:22an alkate jaunak bilkura amaitutzat eman du eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

*No habiendo más asuntos a tratar, a las 8:22 horas el señor alcalde levanta la sesión, de todo lo cual, como secretaria, doy fe.*

ALKATEA
*EL ALCALDE*

IDAZKARIA
*LA SECRETARIA*